


Euskal AEko industria-prezioak % 0,3 igo dira 2025eko azaroan, aurreko hilaren aldean

2024ko azaroaren aldean, industria-prezioek % 1,3ko igoera izan dute

Eustatek bildutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioek % 0,3 egin dute gora 2025eko azaroan, aurreko hilaren aldean. Azaroko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena) % 1,3 igo da.

Azterketa zehatzago batek agerian uzten du, 2025eko azaroan, *Koke-lantegiak eta petrolio-fintzea* (% 5,6) eta *Material eta ekipo elektrikoek fabrikazioa* (% 1,2) sektoreek igo dituztela gehien prezioak aurreko hilaren aldean. Aitzitik, prezioetan hilabete batetik bestera jaitsierarik handienak izan dituzten sektoreak *Ura* (% 2,2) eta *Zuraren, paperaren eta arte grafikoek industria* (% 2,0) izan dira.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Helburu ekonomikoaren araberrako ondasunen sailkapenari jarraituz, 2025eko urriaren aldean *Energiaren* prezioak % 3,6 igo dira. *Kontsumo-ondasunek*, bestalde, % 0,9ko jaitsiera izan dute, *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* % 1,2ko jaitsieraren ondorioz; izan ere, *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* prezioak ez dira aldatu. *Ekipamenduko ondasunei* dagokienez, prezioak % 0,7 jaitsi dira hilabete batetik bestera, eta *Bitarteko ondasunen* kasuan % 0,1 egin dute behera.

Urte artean, 2025eko azaroa 2024ko azaroarekin alderatuta, prezioen igoerarik handienak honako adar hauetan izan dira: *Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa* (% 12,6) eta *Farmazia-produktuen fabrikazioa* (% 10,3). Aitzitik, *Industria kimikoa* adarreko prezioek % 0,8ko urte arteko jaitsiera izan dute, eta *Kautxua, plastikoa eta beste produktu mineral ez metaliko batzuk* adarrekoek % 0,7 egin dute behera.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Azaroa 2025

	Indizea	Aldearen %	
		m / m-1	m / m-12
Indize orokorra	112,9	0,3	1,3
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	137,4	-0,5	4,1
Manufaktura-industria	116,1	0,2	1,3
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	127,3	-0,6	2,4
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	112,6	0,1	1,4
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	123,1	-2,0	-0,1
Kokeak eta petrolioa fintzen	117,0	5,6	0,9
Industria kimikoa	127,2	1,0	-0,8
Botiken fabrikazioa	119,2	0,0	10,3
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	116,0	0,0	-0,7
Metalurgia eta produktu metalikoak	110,7	-0,3	1,1
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	125,1	0,6	12,6
Material eta ekipa elektrikoaren fabrikazioa	122,8	1,2	9,9
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	114,1	-0,4	0,5
Garraiorako materialen fabrikazioa	114,6	-0,9	-0,1
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	116,7	-0,4	1,1
Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	77,2	0,7	1,0

Oinarria 2021=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2025eko Abenduaren 22a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Helburu ekonomikoaren araberako ondasun-talde handien prezioen urte arteko aldakuntza positiboa izan da sektore guztietan. *Kontsumo-ondasunetan* prezioak % 0,6 igo dira, *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunetan* % 4,4ko eta *Kontsumo iraunkorreko ondasunetan* % 0,6ko igoerak eman direlako. 2024ko azaroarekin alderatuta, prezioak % 1,5 igo dira *Ekipamenduko ondasunetan* eta % 0,7 *Bitarteko ondasunetan*. Azkenik, *Energiaren* prezioek % 1,1eko urte arteko igoera izan dute.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman dizkie parte hartu duten establezimendu guztiei egin duten esfortzuagatik. Haiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **90,56**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62